

ODEI ARRIZABALAGAREKIN ELKARRIZKETA

Beatriz Avila eta Asier Blanco, Berrizko EISEtik

1.- Zelan hasi nahi duzu elkarrizketa, Gizarte Langile bezala edo Berdintasun Teknikaria gisa? Zergatik?

Momentu honetan bi lanpostuetan dihardut, beraz, biak aipatzea komeni da baina egia da Berrizko Udalean Gizarte Langile moduan hasi nintzela eta nire ikasketak Gizarte Lanaren arlotik egin nituela. Berdintasun teknikaria gerora egin naiz, oso gustura gainera.



Iban Gorritik egindako argazkia

2.- Gaur arte zure ibilbidea nolako izan den kontatuko diguzu?

Gizarte Lanean diplomatua eta Soziologian lizentziatua naiz. Berrizko Udaletik deitu zidaten gizarte zerbitzuetan lan egiteko errefortzu moduan, duela 5 urte. Ordutik, hainbat kontratu, funtzio, betebeharrak, egutegi, etab. izan ditut baina betiere gizarte arloan. 2013an Berdintasun Zerbitzuaz arduratzeko proposatu zidaten. Gaiaren inguruan formakuntza egin eta gaur egun Berdintasun teknikaria eta gizarte langilea naiz Berrizko Udalean.

3.- Zure bizitzako zein momentutan erabakitzen duzu laguntza lanetan dihardutzea?

Lanean hasi nintzenean. Nire bokazioa betidanik gizartearekin zerikusia duten gaien azterketa izan da. Beti interesatu izan zaizkit gizartearekin lotutako gaiak; historia, politika, kultura, antropologia, artea, ... horregatik erabaki nuen soziologia ikasketak egitea baina soziologia egin aurretik, gizarte laneko ikasketak egitea gomendatu zidaten, zerikusi handia baitu. Gizarte langile bezala lanean hasi nintzenean, ikusi nuen, laguntza mundua oso aberasgarria dela norbanakoarentzat eta gizartearekin estu lotuta dagoela, beraz, gustuko gauza dut.

4.- Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?

Zaila da erantzutea. Ez dakit orain nagoen leku berdinean jarraituko dudan edo beste lekuren baten. Gauzak dauden moduan egonda gainera. Baina ziurrenik jendearekin hartu-emana daukan zerbaitetan ikusten dut nire burua. Laguntza munduan, gizarte ikerketan, ... hainbat aukera daude baina beti kutsu berdina dutenak.

5.- Zein eta zelakoa da zure lana Berrizko Gizarte Zerbitzuetan?

Berdintasun teknikaria eta gizarte langilea naiz. Berdintasunaren arloan, Berrizko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plana kudeatzeaz arduratzen naiz, bertan ezartzen diren ekintzak aurrera ateraz. Betiere sentsibilizazioari garrantzi handia emanez, emakumeen eskubideak defendatuz, gazteriarri arreta handia jarriz eta Berrizko elkarteekin elkarlanean. Oinarrizko gizarte zerbitzuetan, berriz, errefortzu lanak egiten ditut. Jendaurreko arreta, informazioa, orientazioa eta akonpainamendua eskainiz eta bertatik sortzen diren bideratzeak kudeatuz. Baita ere, gizarte zerbitzuetan antolatzen diren ekintzak aurrera eramaten arduratzen naiz.

ZURRUMURRUEI AURRE EGIN

Idurre Bustinza, Bermeoko GHET.

Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak Aurre Egin Zurrumurruari egitasmoa aurkezten du 2012 urtean eta ondoren zenbait herritan egitasmoa martxan jartzen da esaterako Bermeon, Getxon..

Beraz, Zurrumurruen kontrako proiektua abiatzen du Gizarte Ongizaterako udal patronatoak kultur aniztasunari buruzko estereotipo negatiboak indargabetzeko. Horretarako arlo ezberdinetako eragile sozialen ordezkariekin kontatu nahi da zurrumurruen aurkako sarea antolatzeko.

Proiektuaren helburua agente hauek zurrumurruek identifikatzeko eta aztertzeko gaitasuna izateaz gainera, ikuspegi kritikoaren bidez zurrumurruek indargabetzen saiatzea da. Guzti honen bidez, gure bizilagun eta eragileei hausnarketa egiten laguntzea da, zurrumurru baten aurrean datuak eta argumentuak izan ditzaten deskribatzen saiatzeko.

Zurrumurruek gezurrezko orokortasunak dira, egiazkoa edo gezurrezkoa izan daitekeen gertakari batean oinarritua eta pertsona kolektibo oso bati lotzen zaizkionak helburu ezberdinekin: izen ona zikintzeko, eskubideez gabetzeko, iraintzeko eta abar. Egoera hauek diskriminazioa sortzen dutelarik eta bizikidetzaren kolokan jarri. Zurrumurruek behin ere ez dute hobetzen elkarbizitza eta ez dute guztien ona bilatzen.

Adituek diote aurreiritziak zeregin egokitzailera eta funtzionala betetzen dutela: gure bizitza sinplifikatzen laguntzen digute, ahaleginak eta substantzia grisa "aurrezten" dizkigute eta gizarte-identitatea izatea eta zenbait arauri egokitzea ahalbidetzen digute. Alabaina, aurreiritziak gizarte-kontzientzian murgiltzen direnean eta talde jakin batzuei lotzen zaizkienean, desberdinen arteko bizikidetzaren pozoia izaten dira. Batez ere, eraginpean hartutako taldea talde ahulena denean. Horregatik da garrantzitsua aurre egitea.

Zurrumurruen sarea Udaleko kide, herritar eta herriko eragileen ordezkariekin osatu nahi da. Sare honetan parte hartuko duten pertsonak bere gertukoenekin duten konpromisoagatik, jarreraren aldaketan lagunduko dute, sentsibilizazioa areagotu eta egiazko informazioa eskaini, beti ere immigrazioarekin lotuta dauden estereotipo negatiboak aurre egiteko.

TXIKITATIK EN EIBAR

Aitor Basurto eta Alazne Agirre, Eibarko Gizarte Hezitzaileak.

El pasado 2 de Abril de la mano de las compañeras de Agintzari Eva Las Heras y Maite Calleja, se presentó en Eibar el programa Txikitatik. Txikitatik es un proyecto comunitario de parentalidad positiva y de intervención familiar en la franja 0-6 años que desarrolla metodologías y programas basados en la evidencia. Su finalidad, es mejorar la eficacia de las intervenciones preventivas orientadas a fortalecer y/o reparar el vínculo afectivo en la primera infancia.



Esta iniciativa, se ha llevado a cabo con la colaboración de Servicios sociales de Eibar que prestó sus instalaciones y coordinó e invitó a las familias usuarias a la participación en este proyecto. En este programa, participaron nueve familias.

Este proyecto se desarrolló en dos fases; Por un lado, la fase de evaluación inicial, en la que se efectuó la entrevista de relación y la evaluación de la interacción mediante versión reducida de la Situación extraña de Ainsworth. Por otro lado, en la fase de la intervención se ha utilizado el videofeedback como herramienta, en un contexto grupal donde se reunieron todas las familias participantes.

Este proyecto, además de novedoso, resultó innovador y despertó el interés de las profesionales que se implicaron en este proyecto, como Encarna Martín, técnico responsable del área de menores y familias de los servicios sociales que valora el proyecto "la experiencia de trabajar en un proyecto novedoso donde poder visualizar las conductas ayuda a tomar conciencia del propio comportamiento y a facilitar cambios que beneficiarán la relación. Las personas participantes lo han tenido claro: "nos gusta".